

IKASTURTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

IKASTETXEA	CPM FRANCISCO ESCUDERO MKP	KODEA	012681	IKASTURTEA	
IRAKASGAIA	KONPOSIZIO OINARRIAK 1	MAILA	IRAKASKUNTZA PROFESIONALEKO 5. MAILA		
IRAKASLEAK	IÑIGO PEÑA MARINAS				

HELBURUAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
<p>1. Barrokoetik erromantizismora konposatzeko prozedurak ezagutzea garai hauetako hainbat obra eta haien parametro musikalak analizatuz</p> <p>2. Bi eta hiru ahotsetarako kontrapuntu idazkera menperatzea, ariketa praktikotan aplikatuz.</p> <p>3. Harizko sekzioa ezagutzea bikote eta hirukote instrumentalak idatziz, sekzio honen instrumentuen arteko konbinaketa guztiak eginez.</p> <p>4. Suite forma, analisiaren bidez ezagutzea, forma honen konposizioa, hainbat zatiren idazkeraren bidez landuz.</p> <p>5. Klasizismo eta erromantizismo estiloetan idatziak diren hainbat obraren analisia.</p> <p>6. instrumentu polifonikorako eta kamara bikoterako idazkera menperatzea, Klasizismo eta erromantizismo estiloetan obrak konposatuz.</p> <p>7. Haize-egurra eta heize-metala sekzioak ezagutzea hainbat hirukote instrumentalak idatziz, sekzio hauen instrumentuak elkarrekin konbinatuz.</p> <p>8. Koral harmonizazioa eta J.S. Bach-en estiloan doinu idazkera menperatzea, lau ahotsetara harmonizatuz.</p>	<p>1. Hainbat obraren analisiaren bidez barrokoaren ezaugarriak ezagutzen direla erakustea.</p> <p>Ebaluazio-irizpide honen bitartez, ikasleak, barroko estiloaren musika ezagutzen duela egiaztatuko da, era berean, egingo dituen ariketa praktikoa prestatuz.</p> <p>2. Bi eta hiru ahotsetarako idazkera kontrapuntistikoa menperatzea, ariketa praktikotan aplikatuz.</p> <p>Ebaluazio-irizpide honen bitartez, ikasleak, kontrapuntua bi eta hiru ahotsetara idazteko duen gaitasuna egiaztatuko da.</p> <p>3. Harizko sekziarako idazkera menperatzea instrumentu hauetarako idazten praktikatuz.</p> <p>Ebaluazio-irizpide honen bitartez, ikasleak, harizko instrumentuak ezagutzen dituela egiaztatuko da, ariketa praktikotan idaztearen bidez aplikatuz.</p> <p>4. Suite zatiak ondo analizatzea forma musikala hau errespetatzen duten obrak idatziz</p> <p>Ebaluazio-irizpide honen bitartez, ikasleak, suite forma hainbat ikuspuntutatik ezagutzen duela egiaztatuz.</p> <p>5. Obra labur interesgarriak konposatzeko gaitasuna erakustea, ikasturtean zehar ikasten diren arauak jarraituz.</p>

	<p>Ebaluazio-irizpide honen bitartez, ikasleak, ikasturtean zehar ikasten diren edukiak eta prozedurak praktikan jartzeko duen gaitasuna egiaztatuko da.</p> <p>6. Idatziko diren obrak, aurkezteko entzunaldietan parte hartzeko interesa erakustea.</p> <p>Ebaluazio-irizpide honen bitartez, ikasleak praktikara eramateko eta publikoaren aurrean egindako lana aurkezteko duen gaitasuna egiaztatuko da.</p>
--	--

EDUKIEN SEKUENTZIA

Lehen hiruhilabete

1. Kontrapuntuko arauak ezagutzea, bi ahotsetarako kontrapuntu instrumentala idatziz.
2. Harizko instrumentuen ezaugarriak
3. Bi ahotsetarako ariketa instrumentalak, harizko instrumentuak landuz.
4. Forma suite: forma hau duten hainabat obra analizatzea, haren ezaugarriak ikasiz.
5. Suiteko hainbat doinuri akonpaniamendu kontrapuntistikoa idaztea eta suiteko hainbat bajori doinuak idaztea, bi kasuetan harizko bikoterako.
6. Suite forma duen obra bat konposatzea bi ahotsetarako, harizko bikoterako idatziz.
7. Bi ahotsetarako imitazio motibikoa lantzen duten hainbat obraren analisia, baliabide hau garatzeko hainbat ariketa praktikoak eginez, harizko bikoterako idatziz.

Bigarren hiruhilabete

1. Klasizismo eta erromantizismoko instrumentu bakarlari ala kamara talderako idatziak izan diren obren analisia, forma, egitura harmonikoa eta analisi sintaktikoa analizatuz.
2. Haiza-zurezko eta haize-metalezko instrumentuen ezaugarrien ikasketa.
3. Erromantizismoan zehar harmoniaren eboluzioa ikastea, klasizismoa eta erromantizismoa arlom honetan konpa-

ratuz, analisia eta ariketa praktikoak eginez.

4. Textu bati musika jartzea, lied bat konposatzea.
5. Instrumentu polifonikorako ala kamara bikoterako obra bat egitea, bai estilo klasikoan bai erromantikoan. Obra erromantikoa ahozko lied bat izan daiteke.
6. Estilo instrumentalako hiru ahotsetako kontrapuntu arauak.
7. Haize-zura eta haize-metal sekzioen idazkera lantzeko hainbat kontrapuntu ariketa, konposizio lan praktikoetan ere erabiliz.

Hirugarren hiruhilabete

1. J. S. Bach-en koralak analizatzea, analisi harmonikoa eta melodikoa eginez.
2. J. S. Bach-en estiloan praktikatzea, Bach-en doinuen harmonizazioak eginez.
3. J. S. Bach-en estiloan hainbat koral konposatzea.
4. J. S. Bach eta gero beste konpositoreek egin dituzten hainbat koraleen analisia egitea.

METODOLOGIA

- Konzeptu berri bat ikasten diren klaseetan, praktika gisan hainbat ariketa ere egingo dira, sor daitezkenzalantzak argituz. Konposatzeko teknikak ikasteko azalpenak egiterakoan, beharrezkoak diren ariketak egingo dira, ikasle bakoitzak pianoaren gainean, haren proposamena eginez.
- Asteazken zehar egin den lanaren zuzenketa, pianoan ala baliabide teknikoetan entzunez.
- Obren azterketa, ikasleak landu behar dituen elementuak azpimarratuz:
- Idazketa kontrapuntistiko lantzeko ariketak, hainbat ahotsetara, ikasturteko momentuaren arabera.
Koraleko doinuen harmonizazioa, e.a.
- Obren konposizioa, klase teorikoetan adierazten diren pausoak **jarraituz**.
- Egiten diren lanen entzumena eta instrumentazioa.

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
<p><u>Lehen hiruhilabete:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Ondoko lan praktikoak ondo egiteko ereduak izan daitezken hainbat obraren analisia. Lehen hiruhilabete honetan suite forma landuko dugu. • Asteroko kontrapuntua lantzeko hainbat ariketa, suite forma landuz eta harizko instrumentuentzat idatziz. <p>Entregatuko diren lan guztiak, ikasturtean hasieran finkatzen diren baldintzetan entregatu beharko dira</p> <p>Hiruhilabetearen bukaerako azterketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hiruhilabetearen zehar egiten diren ariketa praktiko guztiak entregatu beharko dira ondo bukatuak eta ikasturte hasieran jarritako epe barruan, ikasgaia gaitzetzeko hau derrigorrezkoa izanez. • Klasean, kontrapuntu ariketa baten egiketa, bi ahotsetara, hiruhilabetearen zehar lantzen diren baliabideak agertuz. <p><u>Bigarren hiruhilabete</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Hiruko forma (ABA) duten obraren azterketak, bai estilo klasikoan, bai erromantikoan. • Hiruko forma duten bi obra: bat estilo klasikoan eta beste bat estilo erromantikoan. 	<p>Ebaluazioa, ondoko porzentaia jarraituz lortuko da:</p> <p><u>Lehen hiruhilea:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Entregatzeko lana: %60 • Hiruhile bukaerako azterketa: %40 <p><u>Bigarren hiruhilea:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Entregatzeko lana: %60 • Hiruhile bukaerako azterketa: %40 <p><u>Hirugarren hiruhilea:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Entregatzeko lana: %60 • Hiruhile bukaerako azterketa: %40 <p>Bi arloen artean ertaina egin ahal izateko, ondoko baldintza hauek bete beharko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hiruhilabeteko lanak ondo bukatuak egon beharko dute eta ikasturte hasieratik jakin arazten diren baldintzak bete beharko dira: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Lanak zeharo bukatuak entregatu behar dira: matizak, dinamikak, e.a., kontuan izanez ✓ Eskuz egin ezker: boligrafoz ala rotuladorez beti beltzak erabiliz ala ordenagailuz eginak (musescore, sibelius, finale programak erabiliz)

- Asteroko kontrapuntu ariketak hiru ahotsetara. Bigarren hiruhilabetean zehar haizezko instrumentuak landuko ditugu.

Entregatuko diren lan guztiak, ikasturtean hasieran finkatzen diren baldintzetan entregatu beharko dira

Hiruhilabete bukaerako azterketa:

- Hiruhilabetean zehar egiten diren ariketa praktikoko guztiak entregatu beharko dira ondo bukatuak eta ikasturte hasieran jarritako epe barruan, ikasgaia gainditzeko hau derrigorrezkoa izanez.
- Bukaerako azterketa: hiru ahotsetarako kontrapuntu ariketa baten egiketa, haizezko hirukoterako izanez, hiruhile honetan landuko diren baliabideak ere agertuz.

Hirugarren hiruhilabete

- J. S. Bach-en estiloko hainbat koralen azterketa.
- J. S. Bach-en estiloko koralen berharmonizazio eta estilo honetan idazkera, jarraian lau ahotsetara idatziz.

Entregatuko diren lan guztiak, ikasturtean hasieran finkatzen diren baldintzetan entregatu beharko dira

Hiruhilabete bukaerako azterketa:

- Hiruhilean zehar egin diren koralak entregatu behar

- Bien arteko ertain nota egin ahal izateko, lan bakoitzarena gutxienez: **hiru puntukoa** izan beharko da. Arlo bakoitzean nota hau gutxienez lortzen ez bada, hiruhilabetea gutxikoa izango da

Lehen eta bigarren ebaluazioak informatzekoak izaten dira, ikaslearen jarrera eta gaitasuna baloratzuz.

Hirugarren ebaluazioak berriz, bukaerako ebaluazioaren balorea izaten du.

dira, ondo bukatuak eta ikasturte hasieran jarritako epe barruan.

- Bukaerako azterketa: J. S. Bach-en estiloko korralaren doinu baten harmonizazioa lau ahotsetara egitea.

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK

IKASGAIAREN ERREKUPERAKETA:

1. Lehen bi ebaluazioetan ezezko kalifikazioa duten ikasleek, ikasturtea bukatu aurretik errekuera dezakete, menperatu ez duten azterketa antzeko bat eginez. Ezezko kalifikazioa lana ez entregatzeagatik izan ezker, irakasleak jarriko duen epe barruan lana entregatu beharko da, ebaluazio bakoitzaren porzentaiak aplikatuz.
2. Bigarren ebaluazioan, lehenengoa oraindik suspendituta jarraitu ezker, ikasgaiaren karakter jarraia dela eta, hirugarren ebaluazioan jokaera berdinez jarraituko da.
3. Ekainaren bukaerako ebaluazioan, ezezko kalifikazioa duen ikasgaia errekuera-tzeko, bai gaia suspenditzeagatik bai klasera ez joateagatik, hilabete berean ohiz kanpoko froga egin beharko da, bukaerako frogaren antzekoa izanez, ikasturtean ikasitako edozein gaia agertzea posible izanez. Aurreneko bi ebaluazioetan egin den moduan, ezezko kalifikazioa lana ez entregatzeagatik gertatu ezker, lan hau, irakasleak proposatuko duen ohiz kanpoko froga egiteko errekuera-tzekoaren egun berean entregatu beharko da.
4. Konposizio Oinarrizko ikasgaietan ikasturtez promozionatzen duten ikasleek, ondoko ikasturtean zehar errekuera beharko dute. Ondoko ikasturtearen edozein hiru hilabetetan errekuera beharko dute, irakasleak hala kontsideratuko duenean.

Ohiz kanpoko frogak:

- Tribunalaren pausuak jarraituz: hiru ala lau ahotsetarako kontrapuntuko ariketa bat egitea. Iraunpena: 2 ordu.

- Tribunalak proposatuko duen, J. S. Bach-en koral baten doinuaren harmonizazioa, Iraunpena: 2 ordu.
- Tribunalak proposatuko duen hasiera musikal bat kontuan izanez, obra bat konposatzea. Bikote hala hirukote instrumentalarako izango da. Iraunpena: 2 ordu.

OHARRAK

Goi mailako ikasketak konposizio arloan jarraitu nahi duten ikasleek, lan praktiko gehiago egin beharko dute, goi mailarako sarrera frogeetan egin beharko dituzten sarre-frogak kontuan izanez.

IKASTURTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

IKASTETXEA	CPM FRANCISCO ESCUDERO MKP	KODEA	012681	IKASTURTEA	
IRAKASGAIA	KONPOSIZIO OINARRIAK 2	MAILA	IRAKASKUNTZA PROFESIONALEKO 6. MAILA		
IRAKASLEAK	IÑIGO PEÑA MARINAS				

HELBURUAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
<p>1. Kontrapuntu alderankarriaren idazketa hainbat bitartekotara menperatzea, konposatzeko teknika hau erabiltzen den ariketa praktikoak eta obrak eginez.</p> <p>2. Garai eta estilo ezberdinetako obrak azterketaren bidez, imitatze eta parte libreetan garapen tematikoa egiteko hainbat teknika ezagutzea.</p> <p>3. Teknika imitatiboak praktikatzea, hainbat kanon, inbenzio eta obra instrumental, bi, hiru eta lau ahotsetara eginez.</p> <p>4. Instrumentazio ikasketa jarraitzea, hainbat talde instrumentaleentzako ariketak eta obrak eginez.</p> <p>5. XX.mendeko idazkera tonala lantzea, azterketa eta hainbat obren idazketaren bidez, garai honetako baliabide harmonikoak erabiliz.</p> <p>6. Estilo libreko obrak sortzeko gaitasuna garatzea, ikasle berak haren antolaketa tonala eta modala eginez.</p> <p>7. Entzunaldietan partizipazioa bultzatzea, ikasleek egiten dituzten lanak publikoan aurkezteko asmoz..</p> <p>8. Aztertze eta harmonia egiteko gaitasuna ondo garatzeko hainbat ikasketa teknika eta ohiturak erabiltzea.</p> <p>9. Programazio honetan dauden edukietan sakontzeko asmoz hainbat baliabide tekniko erabiltzea.</p>	<p>1. Kontrapuntu alderangarriaren idazketa menperatzea, beharrezkoak izango diren ariketak eginez</p> <p>Ebaluazio-irizpide honen bitartez, ikasleak, konposatzeko teknika hau ezagutzen duela, eta obra idazterakoan menperatzen duela egiaztatuko da.</p> <p>2. Estilo imitatiboan behar den menperatasuna erakustea, ikasturtean zehar egin behar diren lan praktikoetan imitazio mota ezberdinak erabiliz</p> <p>Ebaluazio-irizpide honen bitartez, ikasleak, estilo imitatiboan obrak idazteko duen gaitasuna eta imitazio mota ezberdinak ezagutzen duela egiaztatuko da.</p> <p>3. XX.mendeko harmonia tonala menperatzea, estilo honen barruan azterketaren eta obren idazketaren bidez</p> <p>Ebaluazio-irizpide honen bitartez, ikasleak, XX.mendeko estilo tonalean teknika harmoniko eta kontrapuntistikoak erabiliz idazteko duen gaitasuna, egiaztatuko da.</p>



4. XX.mendeko estilo barruan, miatzeko eta hizkuntza propio bat sortzeko gaitasuna erakustea, garai honetako idazkeraren baliabideak erabiliz.

Ebaluazio-irizpide honen bitartez, XX.mendeko harmonia tonala ezagutzen duela eta teknika hauek kontuan izanez haren materiala sortzeko gaitasuna duela ere egiaztatuko da.

5. Bakoitzaren obren aztertze eta defendatzeko gaitasuna erakustea, idazketa eta klasearen aurrean egiten diren obren azterketa eginez

Ebaluazio-irizpide honen bitartez, ikasleak, hainbat obretan erabili diren konposizio teknika ikusteko eta praktikan jartzeko ikasketa gisan duen gaitasuna, egiaztatuko da.

6. Ikasturteko edukiak ikasteko eta praktikan jartzeko baliabide teknologikoak erabiltzeko menperatasuna erakustea

Ebaluazio-irizpide honen bitartez, ikasleak, lan praktikoak hobeto egiteko, baliabide teknologikoen erabilpenean duen gaitasuna egiaztatuko da.

7. Ikasturtean zehar, ikasgai honetan ikasten diren edukiak praktikan jartzeko entzunaldietan parte hartzeko interes erakustea:

Ebaluazio-irizpide honen bitartez, ikasleak, ikasitako edukiak praktikan jartzeko duen interesa eta

	<p>publikoaren aurrean haren musika defendatzeko duen gaitasuna, bizitza profesionalean egiten den moduan, egiaztatuko dira.</p>
--	--

EDUKIEN SEKUENTZIA

Lehen hiruhilabete

1. Imitazio teknikak lantzeko analisi eta ariketa idatziak: mugimendu zuzena, kontrako mugimendua, atzeko aurrerako imitazioa, e.a.
2. Kanonak hainbat ahotsetara eta hainbat bitartekotara, imitazio teknika ezberdinak erabiliz.
3. Kontrapuntu alderanzkarria hainbat bitarteko ezberdinetara lantzeko azterketa lanak eta ariketa praktikoak.
4. Forma libre praktikatzea, inbenzioak bi ahotsetara konposatuz, imitazio mota ezberdinak landuz: mugimendu zuzena eta kontrako mugimendua.

Bigarren hiruhilabete

1. Harmoniza kromatikoa: erromantizismo eta postromantizismoko obren analisia.
2. Seidun gehituen akordeak: konposizio ariketak baliabide hau erabiliz.
3. Akorde aldatuak: ariketa praktikoak lau ahotsetara, akorde aldatuaren mota guztiak erabiliz.
4. Obra erromantiko bat konposatzea, akorde aldatuak erabiliz.

Hirugarren hiruhilabete

1. XX.mendeko lehen erdian idatzitako hainbat obra tonal eta modalen analisia, garaiaren teknika harmoniko ezberdinak ikasiz.
2. XX.mendeko antolaketa tonal eta modalaren teknikak ikasteko praktika, forma libre duten hainbat obren idazketaren bidez (akorde hamaikadunak, hamahirudunak, antolaketa bidunetara, hirudunetara, e.a.), ikasleek haien obrak idaztera ere motibatuz.
3. Bikoterako, hirukoterako ala laukoterako obra libre bat konposatzea, hiruhilabetearen zehar ikasitako XX.mendeko baliabide harmonikoak erabiliz.
4. Hiruhilabetearen zehar egiten den obra librearen aurkezpena entzunaldian eta klasearen aurrean defentsa egitea,

lanaren ikasle bakoitzak analisia eginez, lan hau aurrera eramateko, eskura dagoen edozein baliabide teknologiko erabiltzea posible izanez.

METODOLOGIA

- Konzeptu berri bat azaltzen duen klase bakoitzean, ariketa praktikoak egingo dira, ikasleak parte hartuz, sor daitezken zalantzak ere argituz.
- Konposatzeko teknika berriak ulertzeko azalpenetan, beharrezkoak diren ariketa guztiak egin beharko dira, ikasleak pianoan haren proposamena eginez.
- Asteazken zehar egiten den lanaren zuzenketa, pianoan ala beste baliabide teknologikoan entzunez.
- Ikasleak praktikan jartzeko ereduak izan daitezken obren azterketak.
- Ikasturtean zehar egindako lanak aurkezteko entzunaldia.

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
<p><u>Lehen hiruhilea:</u></p> <ol style="list-style-type: none">1. Bi ahotsetarako idatziak diren hainbat inbentzioren analisia.2. Asteroko lanaren egitea eta geroko zuzenketa, hobetu behar diren aspektuak landuz.3. Kanonak egitea imitazioa bitarteko ezberdineetara eginez. Hiruhilabete bukaeran lau entregatu beharko dira; bi 8dunera eta beste bi 5dunera, tonu maorrean eta menorrean.4. Ikasle bakoitzak inbentzio bat idatzi beharko du, imitazioa zuzeneko mugimenduz ala kontrako mugimenduz ahal izanez. Hiruhilabete bukaeran entregatu beharko da.	<p>Ebaluazioa, ondoko porzentaiak jarraituz lortuko da:</p> <p><u>Lehen hiruhilea:</u></p> <ul style="list-style-type: none">• Entregatzeko lana: %60• Hiruhile bukaerako azterketa: %40 <p><u>Bigarren hiruhilea:</u></p> <ul style="list-style-type: none">• Entregatzeko lana: %60• Hiruhile bukaerako azterketa: %40 <p><u>Hirugarren hiruhilea:</u></p> <ul style="list-style-type: none">• Entregatzeko lana: %60• Hiruhile bukaerako azterketa: %40

5. Klase barruan ariketa praktikoak egitea, ikasle guztien partizipazioa lortuz, era honetan ikasle bakoitzaren jakintasuna ere baloratu.

Entregatuko diren lan guztiak, ikasturtean hasieran finkatzen diren baldintzetan entregatu beharko dira

Hiruhilabete bukaerako azterketa:

- Hiruhilean zehar lan praktikoak entregatzea, ondo bukatuak eta ikasturte hasieran jarritako epe barruan.
- Azterketarako ariketa: kontrapuntu alderanzkorren ariketa egitea, 8., 10., ala 12dunera, ala tema baten hainbat kontratema egitea, mugimendu zuzeneko ala kontrako imitazioa ahal izatez.

Bigarren hiruhilabete:

1. Seidu gehituen akordeak: ariketak praktikoak akorde hauek erabiliz.
2. Ariketa harmoniko-kontrapuntistikoak lau ahotsetara, akorde aldatuak landuz.
3. Akorde kromatikoak eta aldatuak dituzten hainbat obraren analisia.
4. Instrumentu polifonikorako edo kamara bikote baterako obra baten egiketa, harmonia kromatikoa landuz. **Hiruhilabete bukaeran entregatu beharko da.**

Bi arloen artean ertaina egin ahal izateko, ondoko baldintza hauek bete beharko dira:

- Hiruhilabeteko lanak ondo bukatuak egon beharko dute eta ikasturte hasieratik jakin arazten diren baldintzak bete beharko dira:
 - ✓ Lanak zeharo bukatuak entregatu behar dira: matizak, dinamikak, e.a., kontuan izanez
 - ✓ Eskuz egin ezker: boligrafoz ala rotuladorez beti beltzak erabiliz ala ordenagailuz eginak (musescore, sibelius, finale programak erabiliz)
- Bien arteko ertain nota egin ahal izateko, lan bakoitzarena gutxienez: **hiru puntukoa** izan beharko da. Arlo bakoitzean nota hau gutxienez lortzen ez bada, hiruhilabetea gutxikoa izango da

Lehen eta bigarren ebaluazioak informatzekoak izaten dira, ikaslearen jarrera eta gaitasuna baloratuz.

Hirugarren ebaluazioak berriz, bukaerako ebaluazioaren balorea izaten du.

Entregatuko diren lan guztiak, ikasturtean hasieran finkatzen diren baldintzetan entregatu beharko dira

Hiruhilearen bukaerako azterketa:

- Hiruhilabete zehar egin diren lanak entregatzea, ikasturte hasieratik jarritako epea eta baldintzak errespetatuz.
- Azterketa: Bajo-tiple ariketa harmoniko-kontrapuntistikoa lau ahotsetara akorde aldatuak landuz eta obra baten analisia, akorde kromatikoak eta aldatuak izanez. Test estiloko galderak ager daitezke.

Hirugarren hiruhilea:

1. Inbentzioak hiru ahotsetara
2. Obra neotonaleen azterketa.
3. Kontrapuntu ariketak XX.mendeko estilo neotonalean.
4. Instrumentu polifoniko bat duen bikoterako, hirukoterako ala laukote baterako obra libre bat konposatzea, lenguai neotonala erabiliz, XX.mendeko estiloan. **Hiruhilabete bukaeran entregatu beharko da.**

Entregatuko diren lan guztiak, ikasturtean hasieran finkatzen diren baldintzetan entregatu beharko dira

Hiruhilabete bukaerako azterketa:

- Hiruhilabete zehar egin diren lan praktikoko guztiak entregatu beharko dira, ondo bukatuak eta ikasturte haieran jarritako epe barruan.
- Taldekide bakoitzak, hiruhilabete egingo duen obra librearen azterketa eta defentsa egin beharko du, azkeneko klasean haren audizioa ere egingez.

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK

IKASGAIAREN ERREKUPERAKETA:

1. Lehen bi ebaluaketan ezezko kalifikazioa duten ikasleek, ikasturtea bukatu aurretik ikasgaia errekuaratzeko aukera izango dute, gainditu ez duten azterketa antzeko bat egingez. Ezezko kalifikazioa lana entregatuta izan ez delako izan ezker, irakasleak proposatuko duen epe barruan entregatua izan beharko da, ebaluazio bakoitzaren porzentaiak aplikatuz.
 - Bigarren ebaluazioan, lehen ebaluazioa suspenditua jarraitu ezker, ikasgaia jarraitua dela eta, hirugarren ebaluazioan era berean egingo da.

OHIZ KANPOKO FROGA:

- Ezezko kalifikazioa duen ikasgaiaren errekuaraketa bukaerako ebaluazioan egin behar ezker, ekainan antolatuko den ohiz kanpoko froga baten bidez egingo da, froga hau, bukaerako frogaren antzekoa izanez, ikasturte zehar landutako edozein gai buruz galdetzea posible izanez. Aurreko bi ebaluaketan egin den moduan, ezezko kalifikazioa lanak ez entregatzeagatik izan ezker, lanak, irakasleak proposatuko duen epe baten barruan entregatuko dira, errekuaratzeko ohiz kanpoko froga egiteko egun berean.
- Errekuaratzeko epe barruan lana entregatu gabe ala azterketa suspenditu ezker, ikasgaia, hurrengo ikasturtearen zehar edozein ebaluaketan gainditu ahal izango du, irakasleak hala kontsideratu ezker, ebaluazio batzordeari adieraziz.

Ohiz kanpoko frogarako azterketa:

- Bi ala hiru ahotsetarako inbentzio bat egitea, imitazioa bai mugimendu zuzena ala kontrakoa izanez. (2 ordu)
- Akorde alteratuak dituen lau ahotsetarako ariketa harmoniko-kontrapuntistiko bat egitea (2 ordu)
- Obra labur bat egitea, irakaslearen hasiera bat jarraituz. (2 ordu)

OHARRAK

Goi mailako ikasketak konposizio ikasbidetik jarraitzea erabakiko duten ikasleek, egiteko lan praktikoko gehiago izango dute, ikasgai honetan goi mailan sartzeko sarrera frogen exigentziak kontuan izanez.